

2023/2024 NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

2022ko azaroaren 14ean GAUR-ean Erasmus+, Amerika Latindarra eta Beste Norako Batzuk programetako eskaera egiteko epea zabaltzen da.

Gogora ezazu mugikortasuna **bakarrik** egiten dutela:

- o Graduen ikasleek: 4. Ikasturtean, lauhileko bat edo ikasturte osoa, titulazioaren arabera (ikusi [Oinarrizko Gida](#))
- o Masterren ikasleek: 2. ikasturtean, lauhileko batean edo bietan

ESKAERA EGIN BAINO LEHEN

1. **Urratsa** – Egiaztatu mugikortasuna eskatu ahal izateko Eskolako baldintzak betetzen dituzula
2. **Urratsa** – Kontsulta ezazu [gure webguneko](#) “Mugikortasun programak” atalean, truke-programa desberdinen norako eta plazei buruzko informazioa. Gogora ezazu Erasmus+ kasuan finantzaketa **gehienez 7** hilabeterako dela zikloagatik, nahiz eta egonaldia luzeagoa izan.
3. **Urratsa** – Bidali itzazu zure zalantza guztiak outgoing.eib@ehu.eus helbidera.

ESKAERA GAUR-EAN EGITEA (ikusi instrukzioak “Nola, egin zure eskaera GAUR-en 8 urratsetan” dokumentuan):

1. **Urratsa** – Irakurri arreta handiz eskaera egiteko instrukzioak [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#).
2. **Urratsa** – GAUR > Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak > Bilboko Ingeniaritza Eskola atalean norakoei buruzko informazioa aurkituko duzu.
3. **Urratsa** – GAUR > Unibertsitate trukea > Eskaerak > Trukeko programak atalean eskaera egin ahal izango duzu. Zure datu pertsonalak guztiak egiaztatu ondoren, sakatu “Eskaera berria” botoia eskaera egiteko. Eska daitekeen norakoen kopurua: 8 gehienez, lehenetsiak ordenatuta. Nahiago dituzun zortzi norakoak adierazteaz gain, koordinatzaileak zureen beste aukera desberdin bat esleitzeko aukera ere marka dezakezu, zortzi aukerenetako bat ez lortzekotan.

GARRANTZITSUA: aurreselektzio-fasean parte hartu eta esleitutako plaza onartu baduzu, ez ahaztu norako hori zure zortzi hautaketen barruan ipintzea.

4. **Urratsa** – **DERRIGORREZKOA**. Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan (1 eraikina, P1E3.2) **PAPEREAN aurkeztu behar den dokumentazioa**:

- Baldintza-onarpena
- Eskaera bete-betea
- Akademi-akordioaren proposamena, eskatutako lehen hiru norakoentzat
- Eskola-espediente originala (UPV/EHUtik kanpoan ikasi baduzu soilik)
- Hizkuntza-mailaren egiaztagiria originalak (aurkeztean, fotokopia egiten da, eta originalak itzuli egiten dira) edo maila daukazula zinpekko atiorpena.
- Parte-hartze ziurtagiriak (kolaborazio-jarduerak Eskolarekin)
- Datu pertsonalen tratamendurako baimena

Oharra.- Aurreselektzioan parte hartu baduzu, eskaera bakarrik eman behar duzu paperean.

Dokumentazioa jasotzeko azken eguna: abenduak 7

**GOGORATU: GAUR-en ESKAERA EGITEKO EPEA
2022ko AZAROAREN 14etik 2021eko ABENDUAREN 5e2ra ARTE DA.**